Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Dominga Beitia Urkia Domi

Bergara, Gipuzkoa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Ama Aretxabaletako Larriño auzoko Kakotegi baserrikoa zen, eta aita Oñatiko Araotz auzoko Saratxo baserrikoa. Araozko Agerre Azpikoa baserrira ezkondu ziren, eta bertan jaio zen Domi. Zortzi anai-arrebaren artean seigarrena izan zen. Hamabi urte arte ibili zen Araozko eskolan. Gero, amaren jaiotetxera bidali zuten neskame hamabost urte izan zituen arte. Barrikako abade-etxean ere egon zen urte eta erdiz, ahuntzak zaintzen, bere izeko abadearen "amakasa" zen eta. Handik etxera itzuli eta Bergarako Oregiren etxean jardun zuen sukalde lanetan hiru urtez, ezkondu zen arte. Angiozarko Hirukotxo baserriko Leon Aranzabalekin ezkondu zen eta Angiozarko Munabe Argietxera joan ziren bizitzera. Bi seme-alaba dituzte.

Zintak

BER-266

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-19
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

BER-267

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-19
- **Iraupena**: 10 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Aretxabaletako Kakotegi baserrira neskame

- **Erref**: BER-266/002

- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Agerre baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen 11-12 urtera arte. Eskolan gutxi ibili zen, baserrian lana egin beharra egoten zen eta. Gero, amaren jaiotetxea zen Aretxabaletako Larrino auzoko Kakotegi baserrira joan zen eta han neskame moduan ibili ei zen lanean. Bertako umeak eskolara joaten ziren bitartean, berak 60 litro esne banatu behar.

2. Araozko eskola; maisu-maistrak eta zigorrak

- **Erref**: BER-266/003
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:06:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Gutxi joan zen eskolara, baserrian lana egin beharra egoten zelako. Hala ere, tarteka joaten zen Araozko eskolara. Aurora izeneko maistra du gogoan. Euskalduna izan arren, dena gaztelaniaz egiten zien. Euskaraz hitz eginez gero, "hablen en cristiano" esaten zien. Berak zer erantzuten zion. Mutilen maisuak hatz puntetan jotzen zituen makilarekin, zigor moduan. Neskei liburuak ipintzen zizkieten buru gainean eta eskuetan, zigor moduan.

3. Aita Kataberako meatzeetan egindako lanaren ondorioz hil zen

- **Erref**: BER-266/006
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:09:57. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitak Kataberako meatzeetan lan egin zuen eta gaixotu egin zen horren ondorioz. 67 urterekin hil zen, ia ordura arte meatzeetan lanean jardun ostean. Aita nolakoa zen fisikoki. Garai hartan Dominga Bergaran zebilen lanean, neskame, Oregirenean.

4. Aretxabaletako Kakotegi baserrian neskame

- **Erref**: BER-266/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:13:38

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Neska koskorretan Aretxabaletako Kakotegi baserrira joan zen neskame. Etxeko lanak egiteaz gain, esnea partitzen zuen Aretxabaletan. Astoan eramaten zituen marmitak eta han etxerik etxe esnea banatu. Bueltan, "Kukuena" dendan etxerako behar ziren gauzak erosten zituen.

5. Gerraostean gosea; etxeko garia eta artoa entregatu beharra

- **Erref**: BER-266/009
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:13:38. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean gose handia pasa ei zuten Araotzen. Baserrian beti egoten zen jatekoa, baina garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren. Behin aitak harriak sartu ei zituen zakuan, baina konturatu egin ziren eta Dominga joan behar izan zen gero, falta zen garia eramatera. Araotzen biltzen zituzten elikagaiak.

6. Jende asko Araozko errotara gauez, estraperloan

- **Erref**: BER-266/012
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:16:35. **Bukatu**: 00:17:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Araozko errotara jende asko joaten zen estraperloan, gauez. Domingak gogoan du asto ilarak egoten zirela. Errotaren arduraduna Antonio Uriarte zen eta langile bat ere bazuen.

7. Ahuntzak zaintzen Barrikan

- **Erref**: BER-266/017
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:22:04. **Bukatu**: 00:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Aretxabaletan egon ostean, Barrikara (Bizkaia) joan zen izeba batengana,

ahuntzak zaintzera. Hango pasadizoak kontatzen ditu. Ahuntz esnea edaten higuindu egin omen zen. Urte eta erdi egin zituen han.

8. Barrikan abade-etxean, ahuntzak zaintzera joanda

- **Erref**: BER-266/019
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:25:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Ahuntzak zaintzen egon zen Barrikan, izeba ezkongabe batengana joanda. Izeba abadearen "amakasia" zen eta abade-etxean bizi ziren. Bederatzi ahuntz eta akerra zeuzkan bere kargu. Antxumeak asko gustatzen zitzaizkion.

9. Bergaratik Araotzera joateko bideak

- **Erref**: BER-266/022
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:29:38. **Bukatu**: 00:30:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Bergaran neskame egon zenean, Araotzera itzultzen zen tarteka. Batzuetan trenez Oñatiraino eta handik ahal zen moduan. Bestela, aste barruan Garai lantegiko langileen autobusean. Taxian ere bai inoiz.

10. Errazionamenduko olioa saldu eta ogia erosi

- **Erref**: BER-266/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:30:36. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamenduan hamar litro olio hartzen zituzten. Olio hura saldu egiten zuten eta diru harekin ogi zuria erosten zuten. Errazionamenduan zer elikagai hartzen zituzten.

11. Bera jaio aurretik etxean gertatutako pasadizo tristea

- **Erref**: BER-266/027
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:34:09. **Bukatu**: 00:38:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Araotzen etxeko egoera oso gogorra zen. Aitak edan egiten zuen eta jenio txarreko jartzen zen. Bera jaio aurretik etxean gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Aitak aulki batekin jo omen zuen ama burutik behera eta ospitalean pasa zituen egun batzuk. Domingaren anaia zaharragoa, artean bularreko umea, Kakotegi baserrira eraman zuten amandrearengana, ama sendatu bitartean.

12. Baserrian aitarekin bizitako egoera gogorrak

- **Erref**: BER-266/028
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:38:33. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Aitak edan egiten zuen eta oso edan txarra zuen, gainera. Egoera gogorrak bizi izan zituen umetan. Behin belarretan zebiltzala, amarengana omen zihoan aita sardearekin. Dominga erdian jarri zen eta ama jotzen bazuen, berak segarekin emango ziola esan zion aitari. Euren etxearen nagusiak aldamenean zebiltzan belarretan eta hango gizonak babestu zituen.

13. Araotzen erreka ondoko garbitokira, arropak garbitzera

- **Erref**: BER-266/032
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:45:03. **Bukatu**: 00:47:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Araozko Agerre baserrian ez zuten urik Dominga umea zenean. Arropak garbitzeko, etxean xaboia eman eta erreka ondoan zegoen garbitokira joaten ziren arropak astintzera. Izarak nola garbitzen zituzten. Etxetik gertu zeukaten. Oñatin "puxetia" esaten da eta Bergaran "lixibia". Edateko ura beheko errekako iturritik ekartzen zuten.

14. Ahizpa zaharrenak umeak nola garbitzen zituen

- **Erref**: BER-266/033
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:47:48. **Bukatu**: 00:48:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Ahizpa zaharrenak, Margarik, ume guztiak garbitzen zituen bi ontzi handitan ura ipinita. Amak beste lan batzuk izaten zituen eta ahizpa zaharrenak egin behar amak egin ezin zituen lanak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com